

<p>ENTZUMENA: 14 (NESKA)</p> <p>Azalpena: 17</p> <p>Elkarreragina: 16</p>	<p>AZALPENA:</p> <p>Egokitu zaion testuaren informazioa oso egoki ematen du; ideia nagusiez gain, zehaztasun eta ñabardura ugari egiten ditu.</p> <p>Diskurtsoa egoki antolatuta dago; gaia aurkezten du eta zehaztapenak egin ostean hasten da hura garatzen, modu oso antolatuan. Oso erraz ulertzen da dioena.</p> <p>Diskurtso zuzena eta aberatsa da. Azkar hitz egiten du, denbora tarte laburrean asko esaten du, eta zuzentasun gramatikal handiz aritu da. Akatsen bat egiten badu, ahozkoaren bat-batekotasunak eragindakoak izan daitezke.</p> <p>Lexiko zehatza eta egokia darabil.</p> <p>Jarioa erabat naturala da.</p> <p>ELKARRERAGINA:</p> <p>Egokitu zaion gaiaren tesia ondo defendatzen du.</p> <p>Solaskideak esandakoak kontuan hartu eta gai da esandakoei erantzun eta ikuspuntu berriak gehitzeko. Primeran ulertzen du hark esandakoa eta ideiak osatzen ere laguntzen dio zenbaitetan (azken partean, batik bat). Etorri handikoa da eta hizkuntza malgutasunez erabiltzeko gai da.</p> <p>Bigarren atal honetan hizkuntza estandarretik apur bat aldendu egin da, eta noiz edo noiz akatsak egin ditu.</p> <p>Oso jario naturala du, eta azkar hitz egiten du garrantzi handiko akats sistematikorik gabe. Gai da zerbait abstraktuagoa adierazi behar duenean ere, modu naturalean aritzeko. Prestutasunez erantzuten die aztertzaileak egindako galderi.</p> <p>Aise eta ondo gainditzen du C1 mailan eskatutakoa.</p>
--	---

ENTZUMENA
15
(MUTILA)

Azalpena: 14

Elkarreragina: 13

AZALPENA:

Gai izan da egokitutako testuaren informazio nagusia emateko.

Eskatzen zaion denbora ondo betetzen du.

Diskurtsoa egoki antolatzen du, eta ondo ulertzen da esaten duena. Hala ere, noiz edo noiz ideien artean saltoak edo informazio hutsuneak izan ditu.

Diskurtso nahiko zuzena egiten du, akatsak ere egiten dituen arren.

Jario nahiko naturala duen arren, etenak eta loturak egiteko zailtasunak ditu zenbaitetan.

ELKARRERAGINA:

Gai da egokitu zaion tesia defendatu eta aldeko argudioak garatzeko. Emandako heldulekuak modu egokian erabiltzeko gai izan da. Solaskidearen ideiak aintzat hartu ditu eta gai izan da haiei erantzuteko.

Adierazi nahi duena esateko gramatika eta lexikoaren jabe bada.

Diskurtso zuzena egiten du. Akats gutxi egiten ditu. Bere jarduna zuzentzeko gai ere bada. Akats horiek, zenbaitetan, ahozko diskurtsoaren ondorio dira.

Jario naturala du, eten batzuk egiten dituen arren.

Polito gainditzen du C1 mailan eskatutakoa.

OHARRA: aztertzailearen parte hartzea laburtuta eta ahotsa eraldatuta dago azken grabazio bikoitz honetan. Kontuan izan, komenigarria dela aztertzaileoi dagokigun horretan neurritz jokatzeko; eta nahiz azalpenean, nahiz elkarreraginean, azterketarien egitekoa da denbora betetzea. Aztertzaileok ezintasun nabarmenak sortutako isiluneen aurrean baino ez dugu parte hartu behar, edozein kasutan, galdera irekiak eginez.